IRAGARKIA, Faster Lan S.M.-ari honako hau jakinarazten diona: 2001eko martxoaren 9ko Ebazpen bidez hasitako zigor-espendienterako instrukzio-egilea izendatu duen Kultura sailburuaren Ebazpena. 8033

**PORTUGALETEKO UDALA**

IRAGARKIA, jakinarazteko Udalak nahitaezko jabegokenketarako espedienteari ekin behar diola, Sotera De La Mier kalean oinezko pasealekua egiteak ukitu behar dituen ondasun-eskubideak okupatzeko xedez. 8033

**IRURAKO UDALA**

IRAGARKIA, Hiri antolamenduko arauen 4. aldaketaren espedienteari hasierako onarpena emateari dagokiona. 8035

ANUNCIO por el que se notifica a Faster Lan S.L. la Resolución de la Consejera de Cultura por la que se designa instructor del expediente sancionador iniciado por resolución de 9 de marzo de 2001. 8033

**AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE**

ANUNCIO por el que se inicia el expediente de expropiación forzosa para la ocupación de los bienes y derechos afectados por la ejecución de un paseo peatonal en la calle Sotera de la Mier. 8033

**AYUNTAMIENTO DE IRURA**

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial de Expediente de Modificación n.º 4 de la Normas Subsidiarias de Planeamiento Urbanístico. 8035

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-2120

62/2001 DEKRETUA, apirilaren 3koa, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia sortzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak Lanbide Heziketako Euskal Plana onartu zuen 1997ko apirilaren 22ko bileran. Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabaki honen bidez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak hasitako lana burutu zuen; izan ere, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak 1997ko martxoaren 24ko bilkura berezian onartu zuen Lanbide Heziketako Euskal Plana.

Horrela, bete egin da Jaurlaritza osatzeko asmoarekin 1994ko abenduaren 26an Ajuria-Enean sinatu ziren erabakietako bat. Erabaki hori lanerako kalitateko prestakuntzari buruzkoa eta otsailaren 22ko 100/1994 Dekretuaren 2. artikuluak aurreikusten duenari buruzkoa da. Bestalde, Dekretu honek Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua osatzen eta arautzen du, eta erakunde horri agintzen dio Euskal Autonomia Erkidegoaren Lanbide Heziketako Plan Orokorra egiteko, gero Jaurlaritzak plan hori onar dezan.

Lanbide Heziketako Sistema Integratuaren eta Lanbide Heziketako Euskal Planak definitzen duen helburu nagusietako bat da kalitatezko lanbide heziketa lor-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-2120

DECRETO 62/2001, de 3 de abril, por el que se crea la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional.

El Plan Vasco de Formación Profesional fue aprobado por el Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el 22 de abril de 1997. Este acuerdo de Consejo de Gobierno culminaba el trabajo realizado por el Consejo Vasco de Formación Profesional que en su sesión extraordinaria del Pleno del día 24 de marzo de 1997 aprobaba dicho Plan Vasco de Formación Profesional.

De este modo, se ha dado cumplimiento a uno de los acuerdos para la formación de Gobierno suscrito en Ajuria-Enea el 26 de diciembre de 1994, relativo a la formación de calidad para el empleo y a la previsión del artículo 2 del Decreto 100/1994 de 22 de febrero, por el que se crea y regula el Consejo Vasco de Formación Profesional, que atribuye a este organismo la elaboración con carácter preceptivo para su aprobación por el Gobierno, del Plan General de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Uno de los objetivos generales del Sistema Integrado de Formación Profesional, que el citado Plan Vasco de Formación Profesional define, es el de conseguir una

tzea. Horretarako, Europan homologagarriak izango diren kalitate mailak bermatuko dira, ekoizpen erakundeek balioestea eta gizarteak oro har hautematea ekarriko dutena, lana lortzeko eta kalitate estandarra hobetzearekin lortu behar den lana eta gizartea aurreratzeko aukeren arabera.

Lanbide Heziketako Euskal Planak V. kapituluan dio Ebaluazio eta Kalitateko Euskal Agentzia sortzea beharrezkoa dela, eta Agentzia horri agindu behar zaiola beharrezkotzat jotzen diren ebaluazio-sistemak ezartzeko eta sustatzeko.

Lanbide Heziketako Euskal Planak kalitatea ebaluatzeko dituen helburuen artean hauexek daude:

– Lanbide Heziketako kalitatea sustatzea eta ebaluatzea, kalitatea segurtatzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko sistemak, prozesuak eta metodoak zehaztuz edota jarriz.

– Biztanleria aktiboaren gaitasunak ebaluatzeko sistema garatzea eta, era berean, ebaluazio horren kalitatea egiaztatzea.

Halaber, planaren VI. eta VII. kapituluetan, adierazitako helburuak lortzeko garatu behar diren ekintza batzuk zehazten dira:

1.– Lanbide Heziketa Sistemaren kalitatea ebaluatzeko, funtsezko eginkizunak bilduko dituen bidea garatzea eta jartzea.

2.– Lanbide Heziketa Sistemaren kalitatea ebaluatzeko sistema bat garatzea eta jartzea, kalitate osoaren ereduan oinarritua.

3.– Kalitate osoaren aldeko motibazioa hedatzea eta zabaltzea lanbide heziketako zentro, antolatzaile eta agente guztien artean.

4.– Lanbide Heziketako kalitate mailak hobetzea.

Azkenik, Lanbide Heziketako Euskal Planak kalitate eta ebaluazioari buruzko esparru handi bi hartzen ditu kontuan, alde batetik Lanbide Heziketa Sistemaren ebaluazio orokorra eta, bestetik, biztanleria aktiboaren gaitasuna ebaluatzea.

Beraz, hori dela eta, Dekretu honen helburua Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea ebaluatzeko Euskal Agentzia sortzea da, Lanbide Heziketako Euskal Planak kalitatea eta ebaluazioari buruz ezartzen dituen aurreikuspenak garatzeko arduratzen den erakundea izan dadin.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko apirilaren 3an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

formación profesional de calidad, asegurando niveles de calidad homologables en el contexto europeo, que posibilite su valoración por las organizaciones productivas y que sea percibida por la sociedad en general en función de las posibilidades de acceso al empleo y de progreso profesional y social, que debe obtener con la mejora de sus estándares de calidad.

El Plan Vasco de Formación Profesional en su capítulo V señala que es necesaria la creación de una Agencia Vasca para la Evaluación y la Calidad a la que se le deberían encomendar las tareas de establecer y promover los sistemas de evaluación necesarios.

Entre los objetivos que el Plan Vasco de Formación Profesional establece en referencia a la evaluación de la calidad se han de destacar:

– Promover y evaluar la calidad de la Formación Profesional definiendo y/o implantando sistemas, procesos y métodos de aseguramiento, evaluación y control de la calidad.

– Desarrollar un sistema de evaluación de las competencias de la población activa y verificar, a su vez, la calidad de esa evaluación.

Asimismo, en los capítulos VI y VII del Plan se concretan algunas de las actuaciones que se han de desarrollar en orden al logro de los objetivos señalados:

1.– Desarrollar e implantar un sistema de evaluación de la Calidad del Sistema de Formación Profesional que comprenda sus funciones esenciales.

2.– Desarrollar e implantar un sistema de evaluación de la Calidad del Sistema de Formación Profesional basado en el modelo de la Calidad Total.

3.– Difundir y extender la motivación por la Calidad Total a todos los centros, organizaciones y agentes de formación profesional.

4.– Mejorar los niveles de calidad de la formación profesional.

En síntesis, el Plan Vasco de Formación Profesional contempla dos grandes ámbitos en relación a la Calidad y Evaluación, por un lado la evaluación global del Sistema de Formación Profesional y por otro la evaluación de la competencia de la población activa.

Es, consecuentemente con todo ello, objeto del presente Decreto la creación de la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional como organismo encargado de desarrollar las previsiones que respecto a la Calidad y Evaluación establece el Plan Vasco de Formación Profesional.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Educación, Universidades e Investigación, de Industria, Comercio y Turismo, y de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión de 3 de abril de 2001,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Helburua.

Dekretu honen helburua da Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentzia sortzea, Euskal Planak proposatutako Lanbide Heziketa Sistema ebaluatzeko arduratzen den erakundea izan dadin, Lanbide Heziketako Euskal Planak aurreikusten duen bezala.

*2. artikulua.*– Erakunde-mendekotasuna.

Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentzia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzari atxikia geratzen da eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren menpe dago Dekretu honetan zehazten diren funtzioak garatzeko.

*3. artikulua.*– Ezarpen eremuak.

Lanbide Heziketako gaitasuna eta kalitatea ebaluatzeko Euskal Agentziaren eginkizunak eremu hauetan garatuko dira:

a) Biztanleria aktibo okupatuaren eta langabearen lanbide gaitasuna ebaluatzea.

b) Lanbide Heziketako Euskal Planak aurreikusitako Lanbide Heziketa Sistemaren kalitatea hobetzea. Horri begira, sistema osatzen duten azpiko sistemak ebaluatuko dira.

*4. artikulua.*– Biztanleria aktiboaren lanbide gaitasuna ebaluatzeko funtzioak.

Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak eginkizun hauek izango ditu:

a) Indarreko araudiarekin bat eta Koalifikazio eta Lanbide Heziketako Institutuarekin lankidetzan, lanbide gaitasuna ebaluatzeko sistema definitzea eta garatzea.

b) Lanbide Heziketako Institutuak ezarritako irizpideekin bat, lanbide gaitasunak eta koalifikazioak ebalua eta egiazta ditzaketen zentroak, entitateak eta erakundeak homologatzea, ezarriko den araudiaren arabera.

c) Prestakuntza zentro eta erakunde homologatuekin lankidetzan aritzea, pertsonek lortutako lanbide gaitasunaren ebaluazio egitura inplementatzeko.

d) Lanbide Heziketa Sistemaren kalitatea ziurtatzeko behar diren egiaztatze-gailuen jarraipena definitzea, ezartzea eta burutzea.

*5. artikulua.*– Euskal Herriko Lanbide Heziketa Sistemaren kalitatea hobetzeko eginkizunak.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

El presente Decreto, en cumplimiento de lo previsto en el Plan Vasco de Formación Profesional, tiene por objeto la creación de la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional, como órgano encargado de evaluar el Sistema de Formación Profesional.

*Artículo 2.*– Dependencia orgánica.

La Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional queda adscrita orgánicamente a la Dirección de Formación Profesional del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, dependiendo funcionalmente del Consejo Vasco de Formación Profesional para el desarrollo de las funciones que se determinan en el presente Decreto.

*Artículo 3.*– Ámbitos de actuación.

Las funciones de la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional se desarrollarán en los siguientes ámbitos:

a) La evaluación de la competencia profesional de la población activa tanto ocupada como desocupada.

b) La mejora de la calidad del Sistema de Formación Profesional previsto en el Plan Vasco de Formación Profesional, evaluando los subsistemas que lo conforman.

*Artículo 4.*– Funciones en el ámbito de la evaluación de la competencia profesional de la población activa.

La Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional tendrá las siguientes funciones:

a) Definir y desarrollar, de conformidad a la normativa vigente y en colaboración con el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional, un sistema de evaluación de la competencia profesional.

b) Homologar, de conformidad a los criterios que establezca el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional, a los centros, entidades e instituciones que puedan evaluar y certificar, de conformidad a la normativa aplicable, las competencias y cualificaciones profesionales.

c) Colaborar con los centros de formación y organizaciones homologados para implementar la estructura de evaluación de la competencia profesional adquirida por las personas.

d) Definir, implantar y realizar el seguimiento de los dispositivos de verificación necesarios para asegurar la calidad del Sistema de Formación Profesional.

*Artículo 5.*– Funciones en el ámbito de la mejora de la calidad del Sistema de Formación Profesional del País Vasco.

Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziaren eginkizunak hauek izango dira:

a) Lanbide Heziketa Sistema osoari ezarriko zaion kalitatea ebaluatzeko eredua definitzea eta bere erabilera garatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea.

b) Lanbide Heziketa Sistemaren kalitatea sustatzeko politika definitzea eta abian jartzea. Horretarako, gogobetekotzat har daitezkeen kalitate neurriak, faktoreak eta mailak ezarriko dira. Halaber, kalitatea adieraziko duen sistema sortu egingo da Lanbide Heziketa Sistemaren eragimen eta eraginkortasun maila ebaluatzen utziko duena, aurreko atalean aipatutako kalitate ereduaren arabera. Ekintza hauek beste erakunde eta administrazio batzuekiko lankidetzan burutu daitezke.

c) Lanbide Heziketa Sistemaren zentro eta erakundeei beren kudeatze kalitate mailak ebaluatzeko eta auto-kontrola egiteko gaitzen dituen prozedurak eta tresnak ematea, baita kudeatze horren kalitate mailak barrutik egiaztatzeko prozedurak eta tresnak ere.

d) Lanbide Heziketa Sistemaren zentro eta erakundeei laguntza teknikoa ematea, kudeaketa hobetzeko.

e) Lanbide Heziketa Sistemaren ebaluazio orokorra egitea eta, zehazki, bertan sartutako aldaketa eta izaera orokorreko berrikuntzen eragin eta emaitzena.

Eginkizun hauek ondorengo ezarpen eremu batean edo bietan garatuko dira:

1.– Prestakuntza zentro bakoitzaren eta Lanbide Heziketa Sisteman parte hartzen duten gainontzeko subjektuen kudeatze kalitatea ebaluatzea. Beste batzuen artean hauek hartuko ditu barnean:

– Prestakuntza zentroaren eta Lanbide Heziketa Sisteman parte hartzen duten gainontzeko pertsonen prestakuntza prozesuaren kalitatea ebaluatzea.

– Giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa ebaluatzea.

– Prestakuntza prozesu beraren albokideak diren prozesuak ebaluatzea.

– Koalifikazioen indarraldia ebaluatzea.

– Titulazioen indarraldia ebaluatzea.

2.– Sistemaren ebaluazio orokorra, prestakuntza zentro bakoitzaren eta Lanbide Heziketa Sisteman parte hartzen duten gainontzeko zentro bakoitzaren ebaluazioak sartzearen bidez. Ebaluazio honek ondorengo gaiak aztertzea dakar:

– Zentroen kudeaketaren kalitate maila.

– Lanbide Heziketako Euskal Planean zehaztutako helburuak betetzea.

Las funciones de la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional serán las siguientes:

a) Definir el modelo de evaluación de la calidad aplicable a todo el Sistema de Formación Profesional y desarrollar, coordinar y supervisar su utilización.

b) Definir y poner en marcha la política de promoción de la calidad del Sistema de Formación Profesional estableciendo las dimensiones, factores y los niveles de calidad que deban ser considerados satisfactorios, así como elaborar un sistema de indicadores de calidad que permita evaluar el grado de eficacia y eficiencia del Sistema de Formación Profesional en función del modelo de calidad mencionado en el apartado anterior. Estas acciones podrán llevarse a cabo en colaboración con otras organizaciones y administraciones.

c) Dotar a los diferentes centros y organizaciones del Sistema de Formación Profesional de los procedimientos e instrumentos que les capaciten para evaluar y autocontrolar los niveles de calidad de la gestión de los mismos, así como de los procedimientos e instrumentos para verificar externamente los niveles de calidad de dicha gestión.

d) Prestar la asistencia técnica a los diferentes centros y organizaciones del Sistema de Formación Profesional para la mejora de su gestión.

e) Realizar la evaluación global del Sistema de Formación Profesional y, particularmente, del alcance y los resultados de las reformas e innovaciones de carácter general introducidas en el mismo.

Estas funciones se desarrollarán un uno o en ambos de los siguientes campos de actuación:

1.– Evaluación de la calidad de gestión de cada centro de formación y del resto de los sujetos intervinientes en el Sistema de Formación Profesional, que incluirá entre otros, los siguientes aspectos:

– La evaluación de la calidad del proceso formativo en el centro de formación y en el resto de los sujetos intervinientes en el Sistema de Formación Profesional.

– La evaluación de la gestión de los recursos humanos y materiales.

– La evaluación de procesos que son colaterales al propio proceso formativo.

– La evaluación de la vigencia de las cualificaciones.

– La evaluación de la vigencia de las titulaciones.

2.– Evaluación global del sistema, mediante la integración de las evaluaciones individuales de cada centro de formación y del resto de los sujetos intervinientes en el Sistema de Formación Profesional. Esta evaluación permitirá analizar los siguientes aspectos:

– El nivel de calidad de la gestión de los centros.

– El cumplimiento de los objetivos marcados en el Plan Vasco de Formación Profesional.

– Berariazko, Lanerako eta Etengabeko Lanbide Heziketaren eskaintza egokitzea, ekoizpen sistemaren beharren arabera.

– Emandako prestakuntza eta eskatutako lanbide gaitasunak bat etortzea.

*6. artikulua.–* Beste eginkizun batzuk.

1.– Eginkizun horietaz gain, Lanbide Heziketaren Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak egiaztagiriak sinatzeko erakunde-ardura ere izango du, beti ere araudi ezargarriaren arabera. Era berean, Lanbide Lorpenen Erregistroaren ardura ere izango du. Erregistroaren bidez, egiaztagiriak gorde eta artxibatuko dira.

2.– Aurreko artikuluetan adierazitako eginkizunez gainera, Lanbide Heziketaren Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak txostenak eta ikerketak egin ditzake, baita egokiak uste dituzten proposamenak eskumeneko erakundeei jakinarazi ere, Lanbide Heziketa Sistemaren kalitatea hobetzeko eta Sistema horri lotuta dagoen prestakuntza ebaluatzeko.

3.– Halaber, bestelako lege xedapenek agintzen dizkio eginkizun guztiak garatuko ditu edo Lanbide Heziketaren Euskal Plana burutzeko zereginetan ari diren sailek agintzen dizkietenak. Era berean, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak egokitzat hartzen dituen ikerketak eta proposamenak egiteko euskarri teknikoa ere izango da Agentzia.

*7. artikulua.–* Egitura.

Lanbide Heziketaren Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziaren berezko eginkizunak betetzeko hiru areatan egituratuko da:

– Gaitasuna ebaluatzeko area.
– Kalitatearen area.
– Egiaztatze eta erregistro area.

*8. artikulua.–* Gaitasuna ebaluatzeko area.

Gaitasuna ebaluatzeko areari dagokio biztanleria aktibo okupatu eta langabearen gaitasuna ebaluatzeko sistema definitzea eta Dekretu honen 4. artikuluan zehaztutako funtzioak garatzea.

*9. artikulua.–* Kalitatearen area.

Kalitatearen areari dagokio Lanbide Heziketa Sistemaren kalitatea hobetzeko zaintzea, baita Dekretu honen 5. artikuluan zehaztutako funtzioak garatzea ere.

*10. artikulua.–* Egiaztatze eta erregistro area.

Egiaztatze eta erregistro areari dagokio behar diren ziurtagiriak ematea, ezarri beharreko araudiaren arabera, eta Lanbide Lorpen Erregistroaren zaintza eta artxibatzeari atxikitako lanak.

– La adecuación de la oferta de Formación Profesional Específica, Ocupacional y Continua de acuerdo con las necesidades del sistema productivo.

– La correspondencia entre la formación impartida y las competencias demandadas.

*Artículo 6.–* Otras funciones.

1.– Además de estas funciones, la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional será el organismo encargado de expedir las certificaciones que correspondan, de conformidad a la normativa aplicable y bajo su tutela quedará el Registro de Logros Profesionales como instrumento de custodia y archivo de dichas certificaciones.

2.– Con independencia de las funciones señaladas en los artículos anteriores, la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional podrá elaborar informes y estudios así como elevar las propuestas que estime oportunas a los órganos competentes en orden a la mejora de la calidad del Sistema de Formación Profesional y a la evaluación de la formación asociada a dicho Sistema.

3.– Asimismo, desarrollará todas aquellas funciones que se le atribuyan por otras disposiciones normativas o le sean encomendadas por aquellos Departamentos que dirigen la ejecución del Plan Vasco de Formación Profesional y actuará como soporte técnico para la elaboración de aquellos estudios y propuestas que el Consejo Vasco de Formación Profesional estime oportunos.

*Artículo 7.–* Estructura.

Para el cumplimiento de las funciones que le son propias, la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional se estructurará en tres Areas:

– Area de la Evaluación de la Competencia.
– Area de la Calidad.
– Area de Certificación y Registro.

*Artículo 8.–* Área de Evaluación de la Competencia.

Al Área de Evaluación de la Competencia corresponde la definición de un Sistema de la Evaluación de la Competencia de la población activa tanto ocupada como desocupada y el desarrollo de las funciones que a este respecto se especifican en el artículo 4 del presente Decreto.

*Artículo 9.–* Área de Calidad.

Al Área de Calidad corresponde velar por la mejora de la calidad del Sistema de Formación Profesional, así como el desarrollo de las funciones que se señalan en el artículo 5 del presente Decreto.

*Artículo 10.–* Área de Certificación y Registro.

Al Área de Certificación y Registro corresponde la expedición de las certificaciones que correspondan, de conformidad a la normativa aplicable, y las labores inherentes a la custodia y archivo del Registro de Logros Profesionales.

*11. artikulua.–* Zuzendaria.

Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak areen lanak koordinatu eta zuzenduko dituen arduraduna izango den zuzendaria edukiko du.

*12. artikulua.–* Aurrekontua.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziari dagozkion partidak jarriko ditu urtero, bere aurrekontuen barruan.

*13. artikulua.–* Agentziaren eginkizunen jarraipena.

Lanbide Heziketaren Euskal Kontseiluak Lanbide Heziketako gaitasuna eta kalitatea ebaluatzeko Euskal Agentziari atxikitako funtzioen jarraipena egingo du, hala agintzen duelako Kontseilua arautzen duen araudiak. Jarraipena egiteko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eta ikerketak eskatu ahal izango dizkio Agentziari.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak Hezkuntza, Berariazko Lanbide Heziketari buruzko jarduera koordiatuko du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egokitzat jotzen duen hezkuntzaren ebaluatze, ikertze eta laguntza zerbitzuekin, baita dagozkion zereginetan hezkuntza ikuskatzailetza teknikoarekin ere.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari ahalmena ematen zaio, dekretu hau garatzeko eta betetzeko, beharrezko xedapenak hartzeko.

***Bigarrena.–*** Dekretu honetan ikusitakoari Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea ezarriko zaio.

***Hirugarrena.–*** Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoaren Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko apirilaren 3an.

Lehendakaria,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

*Artículo 11.–* Director.

La Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional contará con un director que será el encargado de coordinar y dirigir los trabajos de las áreas de la Agencia.

*Artículo 12.–* Presupuesto.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación consignará anualmente, dentro de sus presupuestos, las partidas correspondientes a la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional.

*Artículo 13.–* Seguimiento del desempeño de las funciones.

El Consejo Vasco de Formación Profesional, de conformidad a la norma que lo regula, realizará el seguimiento del desempeño de las funciones asignadas a la Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional, a cuyo fin podrá recabar de la misma los informes y estudios que considere necesarios.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La Agencia Vasca para la Evaluación de la Competencia y la Calidad de la Formación Profesional coordinará su actuación en relación a la Formación Profesional Específica, con los servicios de evaluación, investigación y de apoyo a la educación que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación estime oportunos, así como con la con la Inspección Técnica de Educación en las tareas que le correspondan.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** Se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

***Segunda.–*** En lo previsto en el presente Decreto será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Tercera.–*** El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.